



INAZIO TABUYO abeslari ospetsuak, ez zuan beñere aztu bere jaloeria. Gutxi izango dira ain erriko izanak. Naiz munduz-mundu ibilli bere abots ederrarekin kantatuaz, gurekin izaten genduan Madalen jaietan, batez ere bere bizitzaren azken urteetan. Ori ala izanik, Errederik bere semeari omenaldi bat egin zion, eta ordukoa degu argazki au.

INAZIO TABUYO'K SANTA MARIA MAGDALENA EGUNIAN ERRETERIKO ELIZAN KANTATUA

Por Antonio ZAVALA, S. J.

Onako bertso auk, or goien jarri degun izenburarekin, Donostiko Pepe Artola zanaren esku-idazki batean arkitu ditugu.

Izenburuak ederki adierazten du bertsoak zertarako egin ziran.

Inazio Tabuyo ori, edozeñek dakiana, Erreteriko semea zan, eta fama aundiko kantorea. Ta, bertso auk erakusten dutenez, urte batean beintzat, Madalenetara etorri ta bertso auk kantatu zituan elizan, meza nagusian-edo, bere erritarren atsegiñerako.

Bertsoak Pepe Artola'ren esku-idazki batean agertuta, pentsatzekoa zan jartzallea ere bera izango zala, Baña esan ere ala egiten da bertsoen ondoan, oar batean. Ta jartzallea ezik, musika-egillea nor zan ere bai. Onela dio oarrak:

«La música fue escrita expresamente para ese día y para Tabuyo por el maestro Cándido de Soraluze, e igualmente la letra por José Artola.»

Soraluze ori nor izan zan ez dakigu. Besteren batek eman bearko du, beraz, jaun orren berri.

Ta bertso auetarako jarri zuan musika, ez al da or nunbait ere, Erreteriko koruko paperetan-edo, izango ?

Jose Artola, berriz, edo danak deitzen zioten bezela esateko, Pepe Artola, donostiarra zan, ta oso bertso-jartzalle ugaria. Bere aita ere, Ramón, ala izan zan: oso ugaria eta ona bertso jartzen. Semea, Pepe, 1864-1-4'an jaio zan, eta 1929-IV-29'an il. Bertso-gintza ezik, teatroaren bi alderdiak ere landu zituan; alegia, teatro-idazle ta teatro-egille edo antzezle izan zan. Egille bezela, batez ere komerietan, oso ona omen zan.

Beste argibide jakingarri bat ere badator bertsoen atzetik: «17 julio 1889.»

Urte ori, bertso auek kantatu zirana izango da, seguru aski. Onela egingo zuten: Uztaren 17'an, Pepe Artola'k, Soraluze orren edo beste norbaiten aginduz, bertso auek jarri, eta andik irugarren egunera, 22'an, Tabuyo'k kantatu.

Ona bertsoak:

(SOLO. BARITONO)

*Pozez galoz Zugana,
Birjiña Mariya,
Jesus onaren Ama
oso mirariya;
izar paregabia,
zeruko argiya,
izan zazu gureztat
misericordiya.*

*Mariya Magdalena,
pekatuan zana,
negarretan urturik
joan zan Jesusgana;
gu ere, pekatariyak,
nairik joan Zugana,
errukiturik artu
gailzazu Zuk, Ama!*

(CORO)

*Zure anparo-pian
geradenak azi,
beti dizkigutzu gauz
onak erakulsi;
argatikan fedea
ez degu nai utzi,
baizik Jesusen lege
ona sendo eulsi.*

*Erregulu dezagun
Birjiña Amari,
egiñaz biotzelik
olotzak ugari,
Berak banatu dezan
emen geranari,
amorez begiraturuz
Errenteriyari.*

*Pekatarijen Ama
kulsu gabekua,
eskatutzen dizugu
zuri anparua,
erabat utzirikan,
bai, mudi erua,
izan dezagun gero
betiko zerua.*

Tabuyo orrezaz gertaera bat konta genezake. Bilintxen liburuan jarria degu, bañan emen ere ez du gaizki emango.

Tabuyo Madridentan zan. Lagun batekin bildu zan gau-festa bat egitera. Agidanean, lagunak ala naiko zuten eta kanta kantari asi zan.

Ain zuzen, Bilintxen kanta ta bertsoai ere pasadatxo bat eman zien.

Oso gau txarra zegoan: otza, euria, kaskabarra... Ala ere, jende geiegiz-edo tokia berotu ta leioa idiki bear izan zuten, aizea berritzeko.

Kalea uts-utzik zegoan, noski. Baña leioa idiki zuanak, an ikusi zuan, balkoi baten azpian eta geldigeldi, emakume bat. Lagunai onela esan zien:

—Ara: dagoan egualdiarekin, emakume bat dago or, emengo kantak entzuten!

Deitu ta galdetu zioten:

—Bañan... kanturako orrenbesteko zaletasuna al dezu?

Are erantzuna:

—Nere aita zanaren kantak kantatzen ari ziñaten da...

Bilintxen alaba zan...